

Herritarren zientziaren hamar printzipio

Herritarren zientzia kontzeptu malgua da, eta hainbat egoerataraz zein diziplinataraz egokitu eta zuzendu ahal da. Dokumentu honetan aurkezten diren adierazpenak Europako Herritarren Zientziaren Elkartearen honako lantalde honek garatu ditu: 'Sharing best practice and building capacity' (jardunbide egokiak partekatu eta gaitasunak garatuz). Lantalde hori Londreseko Historia Naturalaren Museoak zuzendu du, eta elkarre horren kide askok hartu dute parte. Ideia nagusia da funtsezko printzipioetako batzuk azaltzea; izan ere, komunitate gisa, uste dugu herritarren zientziaren jardunbide egokien azpian daudela. Testua Eusko Jaurlaritzako Rebea Agirre itzultzaileak euskaratu du.

- Herritarren zientziaren proiektuek aktiboki biltzen ditu herritarrak ataza zientifikoetan. Horiek ezagutza berria edo ulermen hobea sortzen dituzte.**

Pertsona horiek parte-hartzaile, laguntzaile edo proiektuaren lider bezala jardun dezakete, proiektuan zeregin garrantzitsua hartuta.
- Herritarren zientziaren proiektuek emaitza zientifiko berria sortzen dute, adibidez, ikerketa-galdera bati erantzuna emanez edo kontserbazio-ekintzei, kudeaketa-erabakiei edo ingurumen-politikari buruzko informazioa emanez.**
- Zientzialari profesionalak zein zientzialari herritarrak parte-hartzearen onuradunak dira.**

Onura horiek ikerketaren emaitzak argitaratzea, ikasteko aukerak, norberaren gozamina, tokiko, nazioko edo nazioarteko arazoei aurre egiten dien ebidentzia sustatzearen ondoriozko etekin sozialak edo gogobetetasuna izan daitezke; eta horren bidez, erabaki politikoetan eragina izateko balizko potentziala sortu daiteke.
- Nahi izanez gero, zientzialari herritarrek prozesu zientifikoaren hainbat etapatan hartu dezakete parte.**

Horren barruan, ikerketa-galderaren garapena, metodoaren diseinua, datuen bilketa eta analisia, eta jasotako emaitzen komunikazioa egon daitezke.
- Zientzialari herritarrek proiektuaren inguruko informazioa jaso behar dute etengabe, adibidez, nola erabiltzen diren beraien datuak eta ikerketa, politika eta gizartearen arloko zein emaitza jaso nahi diren.**
- Herritarren zientzia beste edozein ikerketa mota bat bezalakoa da; beraz, aztertu eta kontrolatu behar dituen mugak eta joerak ditu.**

Hala ere, ikerketarako ohiko hurbilpenak alde batera utzita, herritarren zientziak parte-hartze publiko handiagorako eta zientziaren demokratizaziorako aukerak eskaintzen ditu.
- Herritarren zientziaren proiektuen datuak eta metadatuak publikoak izan beharko lirarteke, eta, ahal izanez gero, sarbide irekiaren formatuan argitaratu beharko lirarteke.**

Datuen trukea proiektuan zehar edo proiektuaren ondoren egin ahal da, hori eragozten duten segurtasun edo/eta pribatutasun arazoak egon ezean.
- Zientzialari herritarrak proiektuaren emaitzetan eta argitalpenetan aintzatetsi behar dira.**
- Herritarren zientziaren programak beraien ekoizpen zientifikoaren, datuen kalitatearen, parte-hartzaileen esperientziaren eta inpaktu sozial edo politikoaren irismenaren arabera balioztatu beharko dira.**
- Herritarren zientziaren proiektuen liderrek alderdi legalak eta etikoak ez ezik, egilearen eskubideak, jabetza intelektuala, datuak trukatzeko akordioak, konfidentzialtasuna, jardueren ekarpena eta ingurumen-inpaktua ere hartu beharko dituzte kontuan.**